

## BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

### 5204

*AGINDUA, 2022ko azaroaren 16koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreko arlo zientifiko eta teknologikoan eta enpresa-arloan ikertzaile eta teknologoak prestatzeko 2022ko laguntzetarako deialdia egiten duena (Ikertalent Programa).*

Martxoaren 23ko 115/2021 Dekretuaren bidez, nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreko arlo zientifiko-teknologikoan eta enpresa-arloan ikertzaileak eta teknologoak prestatzeko laguntzak arautzen dira (Ikertalent programa).

Dekretu horretako 15. artikulua ezartzen du laguntzen urteroko deialdirako agindua eskumena duen saileko pertsona titularrak egingo duela eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikokoan argitaratuko dela. Modu berean, ezartzen du aginduak gutxienezko eduki hau izango duela: aurrekontu-kreditu eskuragarria, programa bakoitzean iragarriko diren laguntzen kopurua eta bakoitzaren zuzkidura-ekonomikoa, eskabideak aurkezteko epemuga eta hautespen-batzordearen osaera, bai eta eranskin bat ere, zeinean aipatu deialdirako bilduko baitira ikertzaileen eta teknologoaren prestakuntzarako estrategiko eta lehentasunezko zat jotzen diren I+G+Bko laguntza-proiektuen zerrenda eta proiektu bakoitzean onartuko diren atxikitze-ikastetxeen eta titulazioen edo ikerketa-arloen zerrenda.

Deialdi hau ebazterakoan, aintzat hartuko dira administrazio publikoen dirulaguntza jardura arautzen duten publikotasun-, lehia- eta objektibotasun-printzipioak, betiere honako arau hauetan xedatutakoari jarraituz: Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren oinarritzako manuak; Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, eta laguntza eta dirulaguntzei aplikatu beharreko gainerako xedapenak. Gainera, diru-baliabide erabilgarriak agindu honetan ezarritako irizpideen arabera aplikatuko dira.

Laguntza-deialdi honek aurrekontu-estaldura nahikoa du, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022ko ekitaldiko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 11/2021 Legeak baimendutako kredituen arabera.

Horrenbestez, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Deialdia.

1.– 2022ko ekitaldian, hamabi laguntza emango dira prestakuntza jasotzen ari diren doktoratu aurreko ikertzaileentzako programaren barruan, eta hamar laguntza, berriz, teknologoak prestatzeko programaren barruan (Ikertalent Programa 2022).

2.– Agindu honetako eranskinean daude jasota Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren iritziz bi laguntza-programetarako estrategikoak eta lehentasunezkoak diren

I+G+Bko proiektuen zerrenda eta proiektu bakoitzean onartuko diren atxikitze-ikastetxeen eta titulazioen edo ikerketa-arloen zerrenda.

Bigarrena.– Iraupena.

Ikertzaileen prestakuntzara bideratutako laguntzek lau urte jarraituko iraupena eta doktoratu aurreko kontratu baten ezaugarriak izango dituzte. Dena den, kontratua desgaitasunen bat duen pertsona batekin hitzartzen bada, laguntzak sei urteko gehieneko iraupena izan dezake, martxoaren 23ko 115/2021 Dekretuaren 8. artikulua ezartzen duenez.

Teknologoen prestakuntzara bideratutako laguntzek 24 hilabeteko gehieneko iraupena izango dute, martxoaren 23ko 115/2021 Dekretuaren 9. artikulua ezartzen duenez.

Hirugarrena.– Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Laugarrena.– Aurkeztu beharreko eskabideak eta agiriak.

1.– Laguntza-eskabideak Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariari zuzenduko zaizkio.

2.– Modu telematikoan aurkeztuko dira eskabideak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/102910>

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak honako helbide honetan eskuratu daitezke: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

Izapidetze elektronikoa ordezkari baten bidez ere egin ahal izango da, eta, horretarako, ordezkaritza hori Eusko Jaurlaritzaren Ahalordeen Erregistro Elektronikoa inskribatu beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkariak>

3.– Eskabidea honako dokumentazio honekin batera aurkeztu beharko da (martxoaren 23ko 115/2021 Dekretuaren 16.4 artikulua):

a) Egiaztagiria akademiko osoa, hautagaiak lortutako kalifikazio guztiak eta horiek eskuratu zituen egunak adierazten dituen.

b) Curriculum vitae, eta alegatutako merezimenduen egiaztagiria.

c) Txosten labur bat, jardun-proiektuak zergatik aukeratu diren justifikatuko duena (bost orrialdekoa, gehienez); txosten horretan, interesdunak dagokion gaiari buruz zer dakien azaldu beharko da, eta haren profil akademikoa eta profesionala aukeratutako gaiari egokitzen zaizkiola justifikatzen duten merezimendu pertsonalak deskribatuko dira.

d) Hala dagokionean, martxoaren 23ko 115/2021 Dekretuaren 7. artikuluko 2.b) eta 3.b) apartatuetan ageri diren salbuespenak egiaztatzen dituen dokumentazio ofiziala.

e) Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, alderdi hauek egiazkoak direla adierazteko:

– Eskatzailea ez dagoela zigor- eta administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zigortuta, eta ez dagoela hartarako ezgaitzen duen legezko debekuen eraginpean ere, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barnean, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuko 50.5 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50. artikuluan ezarritako gaineko debekuak ez izatea.

– Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 109.4 artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 116. artikuluan ezarritako inguruabarrak ez izatea.

– Lege hau ez betetzearen ondoriozko arau-hauste astun edo oso astunengatik ebazpen irmo baten bidez zehatu dituzten pertsona fisiko eta juridikoek ezin izango dute zehapena ezartzeko eskumena duen administrazio publikoaren dirulaguntzarik edo bestelako laguntzarik jaso, harik eta zehapena bete arte eta, hala badagokio, eragindako ingurumen-kalteak eta galerak konpontzeko eta ordaintzeko neurriak gauzatu arte.

– Lege honetan aurreikusitako arau-hauste astunengatik eta oso astunengatik administrazio-bidean irmoa den ebazpen baten bidez zehatutako pertsona fisiko edo juridiko publiko zein pribatuek ezin izango dute kontratatu, ez eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko administrazio publikoen eta erakundeen dirulaguntzak eskuratu, harik eta dagozkien neurri zuzentzaileak gauzatu arte eta dagozkien isuna ordaindu arte.

4.– Eskabidea aurkeztu ondoko izapideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren bidez egin eta jakinaraziko dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

5.– Zuzendaritza kudeatzailearen zerbitzu teknikoek automatikoki egiaztatuko dute onuradunak egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai eta NANA, titulazioa, erroldatzea eta, hala badagokio, bizileku-baimena ere. Hala ere, eskatzaileak modu arrazoi-tuan aurka egin ahal izango du, eta, hala egiten badu, eskatzen zaion dokumentazioa aurkeztu beharko du, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan 2. paragrafoan xedatutakoaren arabera.

Titulazioaren dokumentaziorik izan ezean, eskabideari honako dokumentuetako bat gehitu beharko zaio, hirugarren apartatuan zehaztutako dokumentuez gain:

– Tituluaren eskaeraren frogagiria, titulua lortzeko beharrezkoak diren ordainketak egin direla egiaztatzen duen dokumentuarekin batera.

– Espediente akademikoan ageri den nota, adierazten duena dagokion titulazioaren multzoko proba gairak dela eta hura jasotzeko beharrezkoak diren ordainketak egin direla.

6.– Eskabidea eta nahitaezko gainerako dokumentazioa aztertuta ikusten bada akatsen bat dagoela edo dokumentazioa ez dagoela osorik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23.5 artikuluan eskabideak zuzentzeko ezarritako arauak aplikatuko dira.

7.– Interesdunek programetako edozeinetan eskatu ahal izango dute laguntza, eta hiruna proiektu aukeratu ditzakete, gehienez, eranskinen jasotako guztien artetik.

8.– Eskabidean ezarritako lehentasun-hurrenkera loteslea izango da, martxoaren 23ko 115/2021 Dekretuaren 20. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bosgarrena.– Diru-zuzkidura.

1.– Laguntza horiek finantzatzeko aurrekontu osoa, gehienez ere, 1.814.600,00 eurokoa izango da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretatik etorriko da. Zenbateko horretatik, 39.300 euro 2022rako ordainketa-kredituari dagozkio, eta gainerako 1.775.300 euroak, 2023tik 2026ra bitarteko ekitaldietarako konpromiso-kredituei.

2.– Gehieneko aurrekontu orokor horretan, Gizarte Segurantzari atxikitzearen ondoriozko gas-tua dago sartuta, eta 309.600,00 euro dira; horietatik 5.800 euro 2022rako ordainketa-kredituari dagozkio, eta 303.800 euro, 2023tik 2026ra bitarteko ekitaldietarako konpromiso-kredituei.

Seigarrena.– Eskatzaileek bete beharreko eskakizunak.

Eskatzaileak, onuradun izateko, martxoaren 23ko 115/2021 Dekretuaren 6. eta 7. artikuluetan ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

Halaber, eranskinean proiektu bakoitzarentzat adierazitako titulazioaren bat izan beharko dute eskatzaileek.

Eranskinean proiektu bakoitzerako adierazitako titulazioez beste bat onartzen bada, hautespen-batzordeak justifikatu beharko du haren onarpena titulazioaren eta proiektuaren edukiak oinarritzat hartuta.

Zazpigarrena.– Laguntzen zenbatekoa.

Laguntzen zuzkidura-ekonomikoaren helburua izango da prestakuntza-prozesuan dauden langileen kostua ordaintzea, laguntza mota bakoitzari ezarritako epean. Horrez gain, onuradunek laguntza gehigarri bat jasotzeko aukera izango dute, martxoaren 23ko 115/2021 Dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

1.– Prestakuntza-prozesuan dauden langileen kostutzat hartuko dira urteko ordainsari ekonomiko gordina eta enpresak Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuotari dagokion zenbatekoa.

Honako hauek dira onartutako diru-zenbatekoak, urteko ordainsari gordin gisa, eta laguntza-modalitate bakoitzari dagokionez:

– Prestakuntzan dauden ikertzaileak: 19.000,00 euro lehen urtean, 20.000,00 euro bigarreanean, 22.000,00 euro hirugarren urtean eta 28.000,00 euro laugarrenean.

Dena den, prestakuntzan dauden ikertzaileei dagozkien laguntzek errespetatu beharko dituzte indarrean dagoen araudiak doktoratu aurreko kontratuentzat ezarritako ordainsarien gutxieneko zenbatekoak, martxoaren 23ko 115/2021 Dekretuaren 12.2 artikuluan adierazten direnak, hain zuzen ere.

– Teknologoak: 14.000,00 euro lehen urtean, eta 14.000,00 euro bigarren urtean.

Enpresak Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuoten zenbatekoak laguntza mota bakoitzarentzat aplikatu beharreko araudiaren arabekoak izango dira.

2.– Laguntza osagarria. Prestakuntza-prozesuak sortutako gastuei aurre egitea izango du helburu, hala nola: laguntzarekin lotutako unibertsitate-ikastaroen matrikulazioa, eta harekin zerikusia duten kongresu-zientifikoetara, mintegietara, ikastaroetara eta lan-jardunaldietara bertaratzeari dagozkion gastuak; beste ikerketa- eta teknologia-zentro batzuetan egingo diren egonaldiek eta laguntzarekin lotutako material bibliografikoak sortutakoak, edo doktorego-tesiaren aurkezpenarekin lotutakoak.

Laguntza osagarri gisa onartutako zuzkidura honako hau da, laguntza-motaren arabera:

– Prestakuntzan dauden ikertzaileak: 8.000 euro, 2.000 euro prestakuntza-urte bakoitzeko.

– Teknologoak: 2.000 euro, 1.000 euro prestakuntza-urte bakoitzeko.

Nolanahi ere, urte batean erabili gabeko laguntza osagarriaren zenbatekoa hurrengo urteetan eskuragarri izango du onuradunak, betiere dagokion aurrekontu-programan behar adina kreditu baldin badago.

Zortzigarrena.– Laguntzak ordaintzea.

Martxoaren 23ko 115/2021 Dekretuaren 14. artikuluan ezarritako eran ordainduko dira laguntzak. Dekretu horren bidez, nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreko arlo zientifiko-teknologikoan eta enpresa-arloan ikertzaileak eta teknologoak prestatzeko laguntzak arautzen dira.

Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, erakunde onuradunak Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistro Telematikoan alta emanda egon beharko du. Alta emateko edo datuak aldatzeko, interesdunak helbide honetan egin beharko ditu izapideak:

<https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

Bederatzigarrena.– Hautespen-batzordea.

Eskabideak ebaluatu eta baloratzeko, hautespen-batzorde bat eratuko da: María Luisa Fraile Correa (Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako Ikerketa-programen arduraduna) izango da batzordeburua, eta Elisa Torre-Enciso Enciso (Enpresa Programaren arduraduna), berriz, ordezkoa. Batzordekideak izango dira Josune Jayo Garro, Sustapen eta Lehiakortasuneko teknikaria (ordezkoa Fernando Saenz de Buruaga Castillo izango da, Berrikuntzako teknikaria), eta Idoia Sasigain Saénz de Buruaga, Enpresa Programako teknikaria; azken horrek idazkari-lanak egingo ditu (ordezkoa María del Carmen González Hernández izango da, Sustapen eta Lehiakortasuneko teknikaria).

Hamargarrena.– Betebeharrak.

Onuradunek martxoaren 23ko 115/2021 Dekretuaren 25. artikuluan xedatutako betebeharrak bete beharko dituzte.

Hamaikagarrena.– Datuen babesa.

Agindu hau aplikatuta biltzen diren izaera pertsonaleko datuak Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta gainerako lege aplikagarrietan xedatutakoaren arabera tratatuko dira.

Helbide honetan dago jasota datuen babesari buruzko informazioa:

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/datuak-babesteko-ordezkaria/hasiera/>

**AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.**– Aplikatu beharreko araudia.

Agindu honetan aurreikusita ez dagoen guztirako, honako arau hauetan xedatutakoa bete beharko da: martxoaren 23ko 115/2021 Dekretua, Nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreko arlo zientifiko-teknologikoan eta enpresa-arloan ikertzaileak eta teknologoak prestatzeko laguntzak arautzen dituena (Ikertalent programa); Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua; urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren oinarritzako manuak (Lege Orokor hori, era berean, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak garatu zuen).

**AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Errekurtsoak.**

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaiokete Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

**AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.– Ondorioak.**

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 16a.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

2022ko azaroaren 29a, asteartea

## ERANSKINA

## 2022KO BEKEN DEIALDIA

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILAK ESTRATEGIKOTZAT  
ETA LEHENTASUNEZKOTZAT JOTAKO PROIEKTUEN ZERRENDA

## 1.– IKERTZAILEAK PRESTATZEKO LAGUNTZAK (DOKTORATU AURREKOAK).

Iraupena: 4 urte.

Kod.	Proiektuaren izenburua	Titulazioak	Zentroa
P1	Stock-ean oinarritutako kudeaketaren eta ekosisteman oinarritutako kudeaketaren arteko arrakala itxiz.	Gradua: Matematika, Estatistika, Biologia, Itsas Zientziak, Ingurumen Zientziak, Zientzia Ekonomikoak, Fisika, Informatika, Ingeniaritza, Datu Zientzia	Azti (Sukarrieta)
P2	Konposatu bioaktiboak erauzteko eta lortzeko prozesu optimizatu berriak, elikagai-azpiproduktuetatik abiatuta	Gradua: Kimika, Biokimika, Ingeniaritza kimikoa, Teknologia eta Elikagaien Zientzia	Azti (Derio)
P3	Harrapari handien markatze elektronikoa arrantza-kudeaketa hobetzeko helburuan.	Gradua: Itsas Zientziak, Biologia, Ingeniaritza, Informatika, Matematika	Azti (Pasaia)
P4	Kirolariak elikatzeko doitasun-tresnen garapenean erabilitako adimen artifiziala	Gradua: Telekomunikazio ingeniari- tza, Informatika Ingeniaritza, Matematika, Estatistika	Azti (Derio)
P5	Nekazaritza jasagarriagoa lortzeko «Big data», «machine learning» eta teknologia berriak	Gradua: Informatika, Agronomia, Basoak, Biologia Zientziak, Ingurumen Zientziak, Biokimika, Kimika, Farmazia, Albaitaritza, Elikagaien Zientzia eta Teknologia edo biozientziekin lotutako beste prestakuntza batzuk	Neiker (Derio)
P6	Klima mediterraneoan irin-garia ekoizteko sistema jasagarriagoak sustatzea.	Gradua: Agronomia, Basoak, Biologia Zientziak, Ingurumen Zientziak, Biokimika, Kimika, Farmazia, Albaitaritza, Elikagaien Zientzia eta Teknologia edo biozientziekin lotutako beste prestakuntza batzuk.	Neiker (Derio)
P7	Basogintzarako goi mailako landare lehiakorrek ekoizteko <i>Pinus spp.</i> enbriogenesi somatikoa	Gradua: Agronomia, Basoak, Biologia Zientziak, Ingurumen Zientziak, Biokimika, Kimika, Farmazia, Albaitaritza, Elikagaien Zientzia eta Teknologia edo biozientziekin lotutako beste prestakuntza batzuk	Neiker (Arkaute)

2022ko azaroaren 29a, asteartea

Kod.	Proiektuaren izenburua	Titulazioak	Zentroa
P8	Dieta osasungarriagoei atxikimendua errazteko estrategia sentsozialak. Hainbat zentzumen-modalitatearen aldaketek (testura, itxura, flavor) eta kontsumo-testuinguruek elikagaien pertzepzioan eta hautaketan duten eragina.	Gradua: Gastronomia Zientziak, Elikagaien Kalitatea eta Segurtasuna, Bioteknologia edo aurrekoekin lotutako beste prestakuntza batzuk	Basque Culinary Center (Donostia)
P9	Abere hausnarkarien produkzio-sistemek Euskadin dituzten inpaktu klimatikoak ezaugarritzea, emisioen oinarri-mailak erabilita.	Gradua: Nekazaritzako Ingeniaritza, Ingurumen Zientziak, Elikagaien Zientzia eta Teknologia edo elikagaien ekoizpenarekin, nekazaritzarekin eta jasangarritasunarekin lotutako beste prestakuntza batzuk	BC3 Climate Change - Klima Aldaketa Ikergai Elkartea (Leioa)
P10	Alga-estraktu eta alga-dosi eraginkorrak hautatzea mahasti barruko mildiu eta oidia murrizteko: mahatsondoaren fisiologiaren eta mahatsa eta ardoaren fisiologiaaren ondorioak (SEAWINES proiektua).	Gradua: Biologia, Biokimika Bioteknologia	UPV/EHU (Leioa)
P11	Klima-aldaketaren aurre egiteko nekazaritza iraunkor eta erresilienteagoa ongarrizteko mikroorganismoen erabilpena.	Gradua: Biologia, Bioteknologia, Nekazaritza Ingeniaritza, Ingurumen Zientziak	UPV/EHU (Leioa)
P12	BIOECO-Industria-produktuen industriako azpiproduktuen balioespena material BIObasadotan berritzeko: nola aplikatu ECONómia zirkularra elikakatean.	Gradua: Biokimika eta biologia molekularra, Bioteknologia, Elikagaien Zientzia eta Teknologia, Ingurumen Zientziak, Kimika, Ingeniaritza Kimikoa, Ingeniaritza eta Zientzia Agronomikoa	UPV/EHU (Donostia)



## 2.- TEKNOLOGOENTZAKO PRESTAKUNTZA-LAGUNTZAK

Iraupena: 2 urte.

Kod.	Proiektuaren izenburua	Titulazioak	Zentroa
T1	EAEn elikagaien galerak eta alferrik galtzea murrizteko alternatiba.	Gradua: Ingurumen Zientziak, Biologia, Ingeniaritza, Elikagaien Zientzia eta Teknologia, Kimika, Biokimika edo aurrekoekin lotutako beste prestakuntza batzuk	Azti (Derio)
T2	Ugaritasun-adierazleak FADetako ekozundetan oinarrituta.	Gradua: Itsas Zientziak, Biologia, Ingeniaritza, Informatika, Matematika	Azti (Pasaia)
T3	Euskal Autonomia Erkidegoan merkataritza-interesa duten arrainen banaketaren iragarpen operazionalerako metodoak alderatzea.	Gradua: Matematika, Estadistika, Fisika, Informatika, Informatika Ingeniaritza, Biologia, Itsas Biologia, Ingurumen Zientziak, Itsas Zientziak edo aurrekoekin lotutakoak	Azti (Pasaia)
T4	Elikagaien prozesuen eta produktuen iraunkortasuna ebaluatze eta hobetzeko sistema aurreratu berriak.	Gradua: Ingurumen Zientziak, Biologia, Ingeniaritza Kimikoa, Elikagaien Zientzia eta Teknologia	Azti (Derio)
T5	Hautatutako baso-landarea in vitro ekoiztea, baso-erresilientzia bermatuz aldaketa globaleko egoera batean.	Gradua: Agronomia, Basoak, Biologia Zientziak, Ingurumen Zientziak, Biokimika, Kimika, Farmazia, Albaitaritza, Elikagaien Zientzia eta Teknologia edo biozientziekin lotutako beste prestakuntza batzuk	Neiker (Arkaute)
T6	Baso-pastoretako sistemen erresilientzia ebaluatzea klima-aldaketaren agertoki batean.	Gradua: Agronomia, Basoak, Biologia Zientziak, Ingurumen Zientziak, Biokimika, Kimika, Farmazia, Albaitaritza, Elikagaien Zientzia eta Teknologia edo biozientziekin lotutako beste prestakuntza batzuk	Neiker (Derio)
T7	Paisaiaren antropizazio-mailak medikuntza- eta albaitaritza-intereseko gaixotasunen bektore diren artropodoen ekologian duen eragina.	Gradua: Agronomia, Basoak, Biologia Zientziak, Ingurumen Zientziak, Biokimika, Kimika, Farmazia, Albaitaritza, Elikagaien Zientzia eta Teknologia edo biozientziekin lotutako beste prestakuntza batzuk	Neiker (Derio)

2022ko azaroaren 29a, asteartea

Kod.	Proiektuaren izenburua	Titulazioak	Zentroa
T8	Doitasunezko abeltzaintza, hegazti-hazkuntzan osasuna, animalien ongizatea eta iraunkortasuna hobetzeko.	<p>Gradua:</p> <p>Agronomia, Basoak, Biologia Zientziak, Ingurumen Zientziak, Biokimika, Kimika, Farmazia, Albaitaritza, Elikagaien Zientzia eta Teknologia edo biozientziekin lotutako beste prestakuntza batzuk.</p> <p>Matematika, Estadistika, Ingeniaritza digitala edo datuen tratamendu konplexuarekin lotutako beste prestakuntza batzuk</p>	Neiker (Arkaute)
T9	Gastronomiaren arloko teknologiak probatzea, elikagaien kalitate-adierazleen eta garapen gastronomiko berrien ezaugarrien bidez.	<p>Gradua:</p> <p>Kimika, Elikagaien Zientzia eta Teknologia, Gastronomía eta sukaldaritza-arteak, Bioteknologia, Farmazia.</p> <p>LHko goi-mailako ikasketak:</p> <p>Elikaduraren arloekin lotuta, Kimika</p>	Basque Culinary Center (Donostia)
T10	Gaztakal: ekoizpeneko parametro teknologikoak aztertzea gazta-teknologietan, elaborazio- eta fintze-prozesuaren kalitate-kontrol gisa.	<p>Gradua:</p> <p>Elikagaien Zientzia eta Teknologia, Albaitaritza, Ingeniaritza agronomoa edo nekazaritzako elikagaien produktu eta prozesuekin lotutako beste prestakuntza batzuk</p>	Leartiker (Markina-Xemein)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



QR: 10291#06

**Eskaera**

**Nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreko arlo zientifiko- teknologikoan eta enpresa-arloan ikertzaileak eta teknologoak prestatzeko laguntzak (IKERTALENT Programa). 2022ko deialdia.**

**Instrukzio-organo hartzailea:**

ELIKAGAIEN KALITATE ETA INDUSTRIAKO ZUZENDARITZA

**Eskatzailearen datuak****Identifikazio-dokumentua \*****Zenbakia****\* Izena****Lehen abizena****Bigarren abizena****Sexua****Honen izenean ari da** Pertsona/entitate interesdun gisa espedientean  Ordezkaria**Pertsona/entitate ordezkatuaren datuak****Identifikazio-dokumentua****Zenbakia****Izena****Lehen abizena****Bigarren abizena****Sexua**

Ordezkaritza hau eskaera honetarako erabiliko da, eta ez da gordeko Ahalordeen erregistro elektronikoan.

Atzerritarra izanez gero

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**Bizileku-baimena** Bai  Ez

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoa betez, hurrengo datuak abisuak bidaltzeko erabiliko dira. ABISUEK EZ DUTE JAKINARAZPENIK EKARRIKO. Jakinarazpena egiteko, nahitaezkoa da egoitza elektronikoan eskura jartzen zaion ebazpenaren, ofizioaren edo idazkiaren edukia eskuratzea. ABISUA EZ EGITEAK EZ DU ERAGOTZIKO JAKINARAZPENA GUZTIZ BALIOZKOTZAT JOTZEA

**Jakinarazpen eta komunikazioak hona bidaliko dira:**

Espedientea tramitatzen den bitartean Administrazioak bidalitako jakinarazpenak honi zuzenduko zaizkio:

Tramitazioan zehar administrazioak bidaliko dizkizun jakinarazpenak Ahalordeen erregistro elektronikoan altan emanda dagoen ordezkariari igorriko zaizkio. Ordezkaririk ez badaukazu, honi:

**Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala \***

Gaur egun posta-datuak dituzu. Hemendik aurrera, zure kontuaren datuak elektroniko bidez aldatuko dira.

Nahiz eta zure kontuan posta-datuak izan, jakinarazpena modu elektronikoan bidaliko dizugu.

Pertsona juridiko baten ordezkaria zarenez, Administrazioarekiko komunikazio kanalak elektronikoak izan behar du.

**Jakinarazpen eta komunikazioak jasotzeko kanala aukera dezakezu**

\*

**Elektronikoa:** [Nire karpeta](#) guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Bertan sartzeko, [identifikazio elektronikorako bitarteko](#) bat beharrezkoa da.

**Postala:** Atal honetan jarri duzun helbidera igorriko dira.

**Helbidea** Espainia**Posta kodea****Lurralde Historikoa/ Erkidegoa/ Probintzia****Udalerria****Herria****Helbidea****Zk****Sol.****Letra**

**Kanal elektronikoaren gaineko oharra** Jakinarazpen elektronikora sartzan ez bazara, jakinarazitzat emango da Nire karpetan eskuragarri jartzen denetik 10 egun naturaleko epean. Esandako epea betetzen denean, jakinarazpena ukatu egin duzula ulertuko da, eta horrela jasoko da espedientean. Izapidea egintzat emango da, eta administrazioak aurrera jarraituko du prozedurarekin.



### Abisuak jasotzeko datuak

**Nire karpetan** jakinarazpen edo komunikazioen bat jasotzerakoan abisu bat bidaliko dizugu posta elektronikora eta telefono mugikorrera.

\* Posta elektronikoa

**Berretsi** posta elektronikoa

**Telefono mugikorra**

Gogora ezazu, abisua Ahalordeen erregistro elektronikoa erakunde horretako prozedura honetan langile bezala daudenei bidaliko dela ere bai

### Komunikazio hizkuntza \*

Mezu elektronikoa eta abisu-mezu bidezko jakinarazpen eta komunikazioak zuk aukeratutako hizkuntzan bidaliko dizkizugu.

Euskara  Gaztelania

### Datuak erabiltzeko baimena

Nire komunikazio eta abisuetarako datuak Eusko Jaurlaritzako sail eta erakundeekiko harremanetan erabiltzea nahi dut.

Nire komunikazio eta abisuetarako datuak espediente hau kudeatzeko bakarrik erabiltzea nahi dut.

### Datuen babesari buruzko informazio oinarritzkoa

Eskabidean agertzen diren datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: Dirulaguntzak Elikagaien kalitatearen eta industriaren arloan.



- **Arduraduna:** Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumena Saila
- **Helburua:** Dirulaguntzen, beken eta i+g gaineko segimendua, kontrola eta kudeaketa
- **Legitimazioa:**
  - Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.
- **Hartzaileak:**
  - Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk
  - Nekazaritza eta Arrantza Estatistika Ofizialen zerbitzua (SEAS). Erakunde pagatzailea
- **Eskubideak:** Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.
- **Informazio osagarria:** Gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua

[www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/001600-capa2-eu.shtml](http://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/001600-capa2-eu.shtml)

### Araudia:

Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra [www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa\\_dpd/eu\\_def/adjuntos/RGPD-2016\\_0679\\_eu.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf)

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko. [www.boe.es/boe\\_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf](http://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)

**Bizilekua**

\* Posta kodea

Lurralde Historikoa/ Erkidegoa/ Probintzia \*

Udalerrria \*

Herria \*

\* Helbidea

\* Zk

Eskailera

Sol.

Letra

\* Telefonoa

Faxa

\* Emaila

**Jaiotze datuak**

Jaioteguna \*

\* Jaioterria

\* Lurralde Historikoa / Probintzia

**Errolda-datuak**

Lurralde historikoa \*

Udalerrria \*

EAEen erroldatuta noiztik \*

**Ikasketa datuak**

Laguntza lortzeko eskatzen diren graduko ikasketak edo baliokideak amaitu zituen data (ez tituluaren data, titulua lortzeko ikasketen data baizik) \*

**Gizarte Segurantzako afiliazio-zenbakia**

\* Zenbakia

**Datu fiskalak**

\*

EAE  EAetik kanpo

Lurralde Historikoa: \*

Probintzia: \*

**Proiektuak**

Aukeratu 3 proiektu gehienez.

Gogoratu proiektu bera behin baino gehiagotan ez hautatzea eta hautaketa lehentasun-ordenaren arabera egitea, loteslea baita.

1. aukera \*

2. aukera

3. aukera



## Erantzukizunpeko adierazpenak

Aitortzen du eskatzaileak:

- Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penalik ez izatea, ezta horretarako legezko inolako debekurik ere, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.
- Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50. artikulua ezartzen dituzten gainerako debekuen eraginpean.
- Ekonomia Zirkularerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 109.4. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 116. artikuluan ezarritako inguruabarrak ez izatea.
- Nekazaritzaren, arrantzaren eta elikaduraren arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren antzeko laguntzarik jaso ez izana.
- Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta izatea, erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan.
- Benetakoak dira eskabide honetan eta erantsitako dokumentuetan jasotako datuak.

**Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioaren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaritzen dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015) Legearen 69.4 artikulua \***

Erantzukizunpeko adierazpen honetan jasotako datuak faltsutzen badira, erakundeari aplikatuko zaio indarrean dagoen zehapen-araubidea, administratiboa zein penala.

Gehitu nahi den dokumentua	Erantsitako dokumentua
Bestelako informazio osagarria, zuzendaritza eskudunak eskatuta.	
Curriculum vitae eta alegatutako merezimenduen egiaztagiria. (PDF bakar batean)	
Laguntza proiektuaren aukeraketa justifikatzen duen memoria.	
Bestelako informazio osagarria, eskatzailearen iritziz.	
Eskatutako titulazioaren antzinasunari dagozkion salbuespenen egiaztapen ofiziala.	
Errolda-betekizunaren salbuespena egiaztatzea.	
Borondatezko ordezkari emateko inprimaki normalizatua, eskabidea ordezkari bidez izapidetuz gero.	
Ziurtagiri akademiko osoa.	



2022ko azaroaren 29a, asteartea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, prozedura honen instrukzio-organoak **ofizioz egiaztatuko ditu** administrazio eskudunean datu hauek:

**Ofizioz konprobatzea**

Unibertsitateaz kanpoko tituluak (Hezkuntza Ministerioa)

Gizarte Segurantzaren ordainketan egunean egotea (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia - GSDN)

Biztanle-errola (EAeko Udalak)

Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatea (Euskal Foru Aldundiak eta Zerga Administrazioako Estatu Agentzia)

1992. urtetik aurrerako unibertsitate-tituluak (Hezkuntza Ministerioa)

Ez da interesatuaren oniritzirik behar datu hauek sartu ahal izateko.

Laguntzak behar bezala esleitzeko, adierazitako datuak erkatu eta beharrezko direnak egiaztatu ahal izango ditu Administrazio publikoak.

\_\_\_\_\_ (e)n , \_\_\_\_\_ (e)an

(Tokia)

(Data)

(Pertsona/entitate interesdun gisa edo ordezkariaren sinadura)

**ESKABIDEA OSATZEKO ARGIBIDEAK****IDENTIFIKAZIO DATUAK****Zure izenean ari bazara:**

- *Identifikazio datuak* atalean, bete itzazu titularrari dagozkion datuak.
- Sina ezazu eskabidea.

**Beste pertsona edo entitate baten ordezkaria bazara:**

- *Identifikazio datuak* atalean, bete itzazu ordezkatzan duzun pertsonari dagozkion datuak *Titularra* atalean, eta zureak *Ordezkaria atalean*.
- Sina ezazu eskabidea.

*Erakundeak ordezkari bidez aritzen dira beti.*

**Identifikazio-dokumentua**

Zehaztu dokumentu-mota: NAN, IFK, AIZ, pasaportea edo bestelakoren bat.

**KOMUNIKAZIO ETA JAKINARAZPENETARAKO KANALA**

Jakinarazpen eta komunikazioak jasotzeko, aukera hauek dituzu:

- *Posta bidezkoa*: atal honetan jarri duzun helbidera igorriko dira.
- *Elektronikoa*: Nire karpeta guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Bertan sartzeko, onartutako ziurtagiri elektronikoa bat izan behar duzu.

*10 egun naturalean jakinarazpen elektronikoa batera sartzen ez bazara, ulertuko dugu ez duzula onartu. Ondorioz, izapidea egintzat joko da, eta administrazioak prozedura tramitatzen jarraituko du.*

**ABISUAK JASOTZEKO DATUAK (JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIO ELEKTRONIKOETARAKO BAKARRIK)**

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoa jasotzea aukeratu baduzu, helbide elektronikoa eta SMS bidezko abisu-sistema erabil dezakezu. Abisu bat jasoko duzu jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen zaizun bakoitzean.

*Helbide elektronikoa edo telefono-zenbaki bat baino gehiago emanaz gero, bereiz itzazu puntu eta koma bidez (;).*

**ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK**

Eskatzaileak aitortzen du, bere erantzukizunpean, adierazpen hauetan azaltzen diren datuak benetakoak direla.

Administrazioak prozedurarekin ez jarraitzea erabaki dezake datuak zehatzak ez badira, zerbait nahita esan gabe geratu bada edo faltsuak badira. Horrek ez du eragotziko izan daitezkeen bestelako erantzukizun penal, zibil edo administratiboek aurrera egitea.

Ez dago dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik gabe uzten duten lege-debekuen eraginpean, beren-beregi sexu-diskriminazioagatik lege-debekuen eraginpean. (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak seigarren azken xedapenean dioenaren arabera).

Egunean ditu indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak, arauz zehaztu bezala. (1/1997 Dekretuaren arabera, deialdia kudeatzen duen organoak berriazko baimenik gabe egiaztatuta ahal izango du erakunde eskatzaileak egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak).

**AURRETIK AURKEZTUTAKO DOKUMENTUAK**

Nahitaezko datuak dira: Dokumentuaren izena eta Zein erakundetan entregatu zen.